



GOBERNANTZA PUBLIKO ETA
AUTOGOBERNU SAILA

Erakunde Harremanetarako
Sailburuordetza

Jaurjaritzaren Idazkaritzako eta
Legebiltzararekiko Harremanetarako
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO

Viceconsejería de Relaciones
Institucionales

Dirección de la Secretaría del Gobierno y
de Relaciones con el Parlamento

JUAN ANTONIO ARIETA-ARAUNABEÑA IBARZABAL, DIRECTOR DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO

CERTIFICO:

Que en el Acta correspondiente a la Sesión del Consejo de Gobierno celebrada el día 16 de junio de 2020, consta, entre otros, el siguiente Acuerdo:

ERABAKI-PROPOSAMENA, EAEKO PROPUESTA DE ACUERDO POR EL QUE SE ADMINISTRAZIO OROKORREAN ETA TOMA CONOCIMIENTO DEL INFORME DE SEKOTORE PUBLIKOAN BALANCE 2019 SOBRE EL GRADO DE GARDENTASUNAREN EZARPEN-MAILARI IMPLANTACIÓN DE LA TRANSPARENCIA EN BURUZKO 2019KO BALANTZE- LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA TXOSTENAREN BERRI EMATEN DUENA ETA CAE Y SU SECTOR PÚBLICO Y SE GARDENTASUNA ETA GOBERNU ONA APRUEBAN MEDIDAS PARA PROSEGUIR SUSTATZEN JARRAITZEKO NEURRIAK CON EL IMPULSO A LA TRANSPARENCIA Y ONESTEN DITUENA. EL BUEN GOBIERNO.

Gobernu Kontseiluaren 2015eko urtarrilaren 13ko Erabakiaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren funtzionamendu-neurriak onartu ziren, informazio publikorako sarbideari, publizitate aktiboari eta gardentasunaren eta gobernu onaren kulturaren aurrera egiteari dagokienez; Gobernu Kontseiluak, halaber, 2015eko, 2016ko, 2017ko eta 2018ko balantze-txostenen berri izateko eta gardentasuna bultzatzen jarraitzeko neurriak onartzeko erabakiak hartu zituen. Erabaki horiekin bat etorriz, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak 2019ko Balantze Txostena egin du, erabaki hura hartu zenetik bost urte igaro ondoren, EAEko Administrazio Orokorrean eta haren sektore publikoan gardentasuna zenbateraino ezarri den aztertzeko, bi arlo hauek kontuan hartuta: publizitate aktiboa eta informazio publikora sarbidea izateko eskubidea.

De conformidad con el acuerdo de Consejo de Gobierno del 13 de enero de 2015, por el que se aprueban medidas de funcionamiento en la administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de acceso a la información pública, publicidad activa y en relación al avance en la cultura de la Transparencia y el Buen Gobierno, y de los Acuerdos de Consejo de Gobierno por los que se toma conocimiento del Informe de Balance 2015, 2016, 2017 y 2018 y se aprueban medidas para proseguir con el impulso a la transparencia, la Dirección de Atención a la Ciudadanía e Innovación y Mejora de la Administración del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno ha elaborado el Informe de Balance 2019 sobre el grado de implantación de la transparencia en la Administración general de la CAE y su sector público, en su doble vertiente, publicidad activa y derecho de acceso a la información pública, una vez transcurridos cinco años desde la adopción de dicho acuerdo.

2018ko balantze-txostenak azken lau urteetan lortu diren aurrerapen sakonak jaso zituen, baita gobernu onaren filosofian errotutako Eusko Jaurlaritzaren gardentasun-eredua ere. Antolaketari dagokionez, honako hauek hartzen ditu oinarri moduan ereduak: lidergo sendoa burutzan eta enplegatu publiko guztien inplikazioa, baita kontrolerako mekanismo independenteak ere; hiru zutabetan oinarritzen den lan-kultura berri baten sustapena: barruan gertatzen dena gertatzen den une berean ikus daiteke kanpotik, kanpoan gertatzen denari adi egoten da barrutik (entzute aktiboa), eta balio publikoa sortzen duten eragile herritarrak aintzat hartzen dira eta haiekin lankidetzan aritzen da; eta kudeaketa-tresna berriak, argitaratutako informazioa kalitatezkoa izan dadin: hau da, zehatza, osoa, eguneratua, testuinguruan kokatua, garrantzitsua eta irekia, berrerabiltzeko aukera emango duena.

Txostenean jasotzen zen, halaber, gardentasun-ereduan aurrera egiten eta eredua sendotzen jarraitzeko erronka jakin batzuk zeudela (eranskinetako txostenean azaltzen direnak) eta 2019ko ekitaldian ekin beharko zitzaizkion, Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzak (OGP) ezartzen dituen eskakizun zorrotzekin bat etorrira. Izan ere, Euskadi aliantza horretako kide da 2018tik, eta konpromiso hauek hartu ditu (bertako kide diren munduko 20 eskualdeek egin duten bezala): gobernu-jarduerei buruzko informazioa eskuragarriago egotea, herritarren parte-hartzea laguntzea, gure gobernu guztietan integritate profesionaleko estandar gorenak aplikatzea, eta teknologia berrietarako sarbidea areagotzea, kontuak ireki eta emateko. Hori guztia lotuta dago gure uste sendo honekin: irekitasunaren balioa defendatzeak oparotasun, ongizate eta giza duintasun handiagoak ekarriko ditu geure herrialdeetara eta elkarren arteko lotura gero eta gehiago dituen mundu honetara. Herritarrekin batera sortu den OGP Euskadiren 2018-2020 Planean gauzatu da konpromiso hori. Plana ezartzeko prozesuan dago, eta Aliantzak zehaztutako ebaluazio-organo independenteak (Independent Report Mechanism-IRM) ebaluatuko du,

El Informe de Balance 2018 recogió los profundos avances que se han logrado durante los últimos cuatro años, y también el modelo de transparencia del Gobierno Vasco enraizado en la filosofía del buen gobierno. Un modelo que está basado organizativamente en un fuerte liderazgo en la cúspide con implicación de todos los empleados y empleadas públicas, así como en mecanismos independientes de control; en la promoción de una nueva cultura del trabajo que pivota sobre tres pilares: lo que pasa dentro puede verse desde fuera en el mismo momento en el que sucede, desde dentro se está atento a lo que sucede fuera (escucha activa) y se reconoce y colabora con los agentes ciudadanos generadores de valor público; y unas nuevas herramientas de gestión exigentes para que la información publicada sea de calidad, esto es, precisa, completa, actualizada, contextualizada, relevante y abierta, que permita su reutilización.

El informe así mismo apuntó a los desafíos inmediatos que debían acometerse en el ejercicio 2019 y sobre los que en el informe recogido en el anexo a este acuerdo se rinde cuentas, para seguir avanzando y consolidando nuestro modelo de transparencia, alineado con las altas exigencias de la Alianza Internacional por el Gobierno Abierto (OGP) de la que Euskadi forma parte desde el 2018, como una de las 20 regiones del mundo que se han comprometido a aumentar la disponibilidad de información sobre las actividades gubernamentales, a apoyar la participación ciudadana, a aplicar los más altos estándares de integridad profesional en nuestro gobierno, y a aumentar el acceso a las nuevas tecnologías para la apertura y la rendición de cuentas, en la convicción de que defender el valor de la apertura contribuye a que haya más prosperidad, bienestar y dignidad humana en nuestros propios países y en un mundo cada vez más interconectado. Este compromiso se ha materializado en el Plan 2018-2020 de OGP Euskadi cocreado con la ciudadanía, que se encuentra en proceso de implementación y que será evaluado por el órgano independiente de evaluación (Independent



2020ko abuztuan amaitzen denean. Gainera, konpromiso hori 2 eta 4 urte bitarteko plan berri batekin indartu beharko da, 2020ko abendua baino lehen herritarrekin batera sortuko dena.

Txostenak, halaber, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen jarduera jasotzen du, organo independente horrek bere gain hartzen baititu, EAEko erakunde komunek eta tokiko erakundeek informazio publikoa berariaz edo presuntzioz ukatzeagatik aurkezten diren erreklamazioak ebazteko eginkizunak, irailaren 13ko 128/2016 Dekretuan ezarritakoa betez.

2019ko balantze-txostenak 2020rako erronkak ere jasotzen ditu. GARDENA – Eusko Jaurlaritzaren Gardentasunaren atarian argitaratuko da txostena, gobernu honek kudeaketa gardena sustatzeko duen borondatearen adierazpide izan dadin.

Horrenbestez, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak proposatuta eta eztabaida egin ondoren, Gobernu Kontseiluak honako hau onartu du:

AKORDIOA

“Lehenengoa.- EAEko Administrazio Orokorreko eta haren sektore publikoko gardentasunaren ezarpen-mailari buruz 2019ko balantze-txostenean jasotako informazioaren berri jakitea, erabaki honen Eranskinean jasotakoaren arabera.

Bigarrena.- Gardentasuna eta gobernu ona bultzatzen jarraitzea; horretarako, 2019ko balantze-txostenean adierazitako lan-ildoak hedatuko dira, eta behar adina jarduera egingo dira, aplikatzekoak diren arauetan eta nazioarteko estandarretan ezarritakoa bete dadin EAEko sektore publikoan eta haren partaidetza duten entitateetan —nahiz eta partaidetza hori nagusia ez izan—.

Report Mechanism-IRM) establecido por la Alianza, a su finalización en agosto del 2020, compromiso que deberá reforzarse con un nuevo Plan de duración 2 a 4 años a cocrear con la ciudadanía antes de diciembre de 2020.

El informe recoge también la actividad de la Comisión Vasca de Acceso a la información pública, como órgano independiente que asume en la CAE las funciones de resolución de las reclamaciones por denegaciones expresas o presuntas a la información pública por parte de las instituciones comunes y locales de la CAE, mediante Decreto 128/2016, de 13 de septiembre.

El Informe de Balance 2019, recoge a su vez los retos para el 2020, y será publicado en GARDENA-Portal de transparencia del Gobierno Vasco como expresión de la voluntad de este Gobierno de practicar la transparencia en su gestión.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno y previa deliberación, el Consejo de Gobierno adopta el siguiente

ACUERDO

“Primero.- Tomar conocimiento sobre la información contenida en el Informe de Balance 2019 sobre el grado de implantación de la transparencia en la Administración General de la CAE y su sector público, en los términos que se recogen en el Anexo al presente Acuerdo.

Segundo.- Proseguir con el impulso a la Transparencia y el Buen Gobierno mediante el despliegue de las líneas de trabajo que se indican en el Informe de Balance de 2019, así como de cuantas actuaciones resulten precisas para avanzar desde el sector público de la CAE, y entidades participadas, aunque no lo sean de forma mayoritaria, en el cumplimiento pleno de lo establecido en las normas de aplicación y estándares internacionales.



Hirugarrena.- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren esku uztea 2015eko urtarrilaren 13ko erabakia hedatzen jarraitzea eta erabaki hau gauzatzea, hura arduratzen baita berrikuntza publikoko proiektuak sustatzeaz —bereziki, *2020ko Gobernantza eta Berrikuntza Publikoko Plan Estrategikoaren* I. ardatzean jasotako gardentasunaren eta partaidetzaren alorreko proiektuak (Gobernu Kontseiluak onartu zuen Plana, 2017ko abenduaren 12an)— eta hura baita ZUZENEAN Herritarrentzako Zerbitzuaren arduraduna. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako sail guztiekin batera —sailek gardentasunaren sustatzaile izan behar baitute atxikita dauzkaten sektore publikoko entitateetan, orientabide orokorren baitan—, sustapen- eta koordinazio-lanak egingo ditu publizitate aktiboa ezartzeko eta informazio publikorako sarbide-eskubidea bermatzeko. Era berean, erabaki hau onartu eta urtebetean gehienez ere, gardentasunaren bi alderdien bilakaerari buruzko balantze bat aurkeztu beharko du Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak.

Tercero.- Encomendar a la Dirección de Atención a la Ciudadanía e Innovación y Mejora de la Administración del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno, encargada de la promoción de proyectos de Innovación Pública, y en particular de los proyectos de Transparencia y Participación recogidos en el eje I del *Plan Estratégico de Gobernanza e Innovación Pública 2020* aprobado por este Consejo de Gobierno el 12 de diciembre de 2017, y así mismo responsable del Servicio de atención a la ciudadanía -ZUZENEAN-, para que, prosiga con el despliegue del acuerdo de 13 de enero de 2015 así como del presente acuerdo, impulsando y coordinando la implantación de la publicidad activa y del derecho de acceso a la información pública con todos los Departamentos del Gobierno Vasco —quienes deberán a su vez actuar de impulsores de la transparencia en las entidades del sector público que tengan adscritas y en las que participen, en el marco de las orientaciones generales-. Así mismo, en el plazo máximo de un año desde la adopción del presente acuerdo la Dirección de Atención a la Ciudadanía e Innovación y Mejora de la Administración del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno deberá presentar un balance sobre el grado de evolución de la transparencia en su doble vertiente.

Laugarrena.- Erabaki hau eta dagokion eranskina argitaratzea GARDENA – Gardentasunaren atarian, Gobernu honek gardentasunarekin eta kontuak ematearekin duen konpromisoaren adierazgarri izan dadin”.

Cuarto.- Publicar el presente acuerdo con su anexo en GARDENA-Portal de transparencia como muestra del compromiso de este Gobierno con la transparencia y la rendición de cuentas”.

ERABAKIAREN ERANSKINA:

ANEXO AL ACUERDO:

**EAEKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO
ETA HAREN SEKTORE PUBLIKOKO
GARDENTASUNAREN EZARPEN-MAILARI
BURUZ 2019KO BALANTZE-TXOSTENA**

**INFORME DE BALANCE 2019 SOBRE EL
GRADO DE IMPLANTACIÓN DE LA
TRANSPARENCIA EN LA ADMINISTRACIÓN
GENERAL DE LA CAE Y SU SECTOR
PÚBLICO**

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación, en Vitoria-Gasteiz, a 16 de junio de 2020, haciendo constar que el Acta donde figura el Acuerdo transcrito, será sometida a la aprobación del Consejo de Gobierno en su próxima reunión.